



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2020KO ABENDUAREN 30EAN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

22. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeiko abenduaren 30ean, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2020ko azaroaren 25eko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko azaroaren 25ean egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2020ko abenduaren 17ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Mikel Zengotita Alberdi.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko abenduaren 17an egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

**2.- 2021 EKITALDIRAKO AZKOITIKO UDALA, SAN JOSE EGOITZA, ZUBIAURRE-
ELKARGUNE INSTITUTUA, AZKOITIA LANTZEN, S.A.-REN AURREKONTUAK ETA
AURREKONTU KONTOLIDATUAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“ANTOLAKUNTZA-BATZORDEAREN IRIZPENA
AURREKARIAK**

Azaroaren 26ko Antolakuntza Batzordean, gobernu-taldeak 2021eko ekitaldirako prestaturiko aurrekontua aurkeztu zuen Ana Azkoitia Urteaga batzordeburuak abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan oinarrituta, hau da, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, IV. Kapituluaren aurrekontu orokorren gertuketa eta onespena zehazten dituena.

Dokumentua banatu egin zen aztertua izan zedin, eta azaroaren 26 eta abenduaren 9,17 eta 23an egindako bileretan aztertua izan da; hala, kezka guztiak argitu dira eta gainerako taldeen ekarpenak jaso dira.



TXOSTEN TEKNIKOA

Udaleko kontu-hartzaileak, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 6.3 e) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, ekonomia- eta finantza-txosten bat egin du, honako hauetarako erabilitako oinarriak azaltzen dituena: aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluazioa, kredituen nahikotasuna eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta, horren guztiaren ondorioz, aurrekontuaren benetako oreka. Era berean, udal-bitartekoak konpromisozko kredituak finantzatzeko aski direla dioen irizpena eman du.

Espedientean, dokumentu hauek daude:

Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu arauari buruzko kontu-hartzailearen txostena

Konpromisozko kredituen eranskina

Transferentzia arrunten eranskina

Zorpetze-eranskina

Pertsonalaren eranskina

Inbertsioen eranskina

Udal Lur zoru ondarearen eranskina

Aurrekontu kontsolidatua

Aurrekontuaren betearazte-araua

2020ko aurrekontuaren aurre likidazioa eta 2020ko irailaren 30erarteko aurrekontua kapitulozka exekutatzea.

Ekonomia- eta finantza-txostena

Antolakuntza batzordeak, 2021eko aurrekontuen proposamenak aztertu zituen. Hona hemen emaitza:

1.-Azkoitiko Udalak 2021eko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 15.245.000,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz

ABSTENTZIOA: Itziar Joaristi, Iraitz Otaño

2.-Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 2021eko ekitaldirako, 896.000,00eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño

3.-San Jose Egoitzaren 2021eko ekitaldirako aurrekontua, 68.300,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño

4.-Azkoitia Lantzen SA ren aurrekontua 2021eko ekitaldirako, 1.862.284,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz

ABSTENTZIOA: Itziar Joaristi, Iraitz Otaño



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.-Azkoitiko Udalaren aurrekontu kontsolidatua 2021eko ekitaldirako, 17.171.284,00eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz

ABSTENTZIOA: Itziar Joaristi, Iraitz Otaño

Horregatik guztiagatik, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzarrari irizpen hau onartzea proposatzen dio.

IRIZPENA

1) Behin-behingo onartzea Azkoitiko Udalak 2021eko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 15.245.000,00 eurokoa.

2º) Behin-behingo onartzea Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 896.000,00 eurokoa.

3) Behin-behingo onartzea San Jose egoitzaren aurrekontua, 68.300,00 eurokoa.

4) Behin-behingo onartzea Azkoitia Lantzen, SAREN aurrekontua, 1.862.284,00 eurokoa.

5) Behin-behingo onartzea aurrekontu kontsolidatua, 17.171.284,00 eurokoa.

6) 21/2003 Foru Arauak, 15. artikuluan, esaten du Udalbatzarrak Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jarriko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta gehien zabaltzen den egunkarian iragarri ondoren, hamabost egunez jarri ere, eta epe hori bukatuta, erreklamaziorik ez bada izan, berriz ere ipiniko dela, osatzen duten aurrekontu guzti-guztiak kapituluka laburtuta, iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

7) Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek (21/2003 Foru Arauko 17. artikulua) alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

8) Behin betiko onartutako Aurrekontu Orokorren kopia bat igorriko zaio Foru Aldundiari.

Azkoitia, 2020ko abenduaren 18a
Batzordeko Idazkaritza”

Ana Azkoitia andreak Udalaren aurrekontuaren irizpena dakartela esanez hasi da. Aurrekontu osoa honela osatuta dago: Udala, Zubiaurre-Elkargune Institutua, San Jose Egoitza eta Azkoitia Lantzen, S.A.

2021eko Aurrekontu Kontsolidatua 17.171.284,00€koa da.

Banaka hasita, Azkoitiko Udalaren aurrekontua 15.245.000,00€koa dela adierazi du. Espedientea oso potola dela dio, eta baita ere bertan dituztela Udal Araua, txosten finantzieroak eta abar.

Batzordeetan landu dela adierazi du, eta EAJ eta PSE alderdiek adostutako aurrekontua dela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Nahiz eta mailegu bat jarri, inbertsionarako gutxiago geratzen dela azaldu du, Foru Fondoaren jaitzieragatik, batez ere.

2021. urtean mailegua eskatzeko asmoa dagoela esan du, Floreagako igogailuen 2. fasea eta igerileku berriaren proiektuak gauzatzeko.

la sail guztiak mantendu direla, aldaketa nabarmenena obren jaitziera dagoela. Inbertsioetan ere jaitziera dago.

Ondoren, kontusail azpimarragarrienak honakoak direla esan du:

- 250.000€ kale/espaloia asfaltatzeko.
- 100.000€ Led argiteria jartzeko.
- 100.000€ Baserrietan internet jartzeko plana.
- Skate, Parkour parkea eta parke biosasungarria.
- Torre Zuri, Errotako lokalera lekualdatzea, eta momentuz Udaltzaingoa Torre Zurira.
- Berdintasun Teknikariaren lanaldia %70era igotzea.

Talde guztiei eskertu die ekarpenak egin eta adostasunetara iritsi direlako, batzuk ajustatuta izan arren; bai kontu-sail berriak sartuta eta baita bestelako konpromezuak adostuz, bai EH Bildurekin, bai Azkoitia Bairekin.

Beste eskaera batzuetan ez direla iritsi adostasunera adierazi du Ana Azkoitia andreak.

Zubiaurre-Elkargune Institutuko aurrekontua 896.000,00€ dela adierazi du, eta bazkide jaitzieragatik igoera nabarmena egon dela udal ekarpenean.

San Jose Egoitzaren aurrekontuari buruz, lehengo urteko berdina dela esan du, 68.300,00€tako.

Azkoitia Lantzen, S.A.ren aurrekontua 1.862.284,00€ da.

Txalonerrekako 3 lursail saldu eta 2 kobratzea aurreikusten dela dio hurrengo urterako sarrera bezala.

Bestalde, gastu bezala, Txalonerrekako bialarekin hasi nahi da.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, Udalaren aurrekontuaren inguruan, mailegua eskatzearen alde azaldu direla esan du. Udal Gobernuak igogailua eta igerilekua egiteko prestutasuna azaldu duela, herritik datozen proiektuak hain zuzen ere.

Beraien proposamena azaldu du, honakoak azpimarratuz:

- Kultura eragileei laguntza, batez ere xume eta hasi berrieneri. Onartua izan da.
- Txerloiko futbol zelaia artifizial bihurtzea aztertzea.
- Alde Zaharrean etxea erosteko laguntza.
- Alokairu laguntzak jubilatuei zabaltzea.
- Baranda azpiko saretxoak, onartua kopuru murriztuan bada ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Parte-hartze prozesua, Plaza berri proiektua.
- Jubilatuen bizi baldintzen inguruko azterketa.
- Etorkinei euskara eskolak ematea.

Aurtengoan konpromezuak hartzea bilatu dutela adierazi du, eta adostasunetara iritsita baiezkoa bozkatuko dutela.

Zubiaurre-Elkargune Institutuan, Masquatoren kontratua luzatzearen azterketa egitearen alde agertu direla esan du, baina momentu egokian. Ez du uste orain momentu egokia denik horretarako. Aldeko bozka iragarri du.

San Jose Egoitzako aurrekontuari buruz alde bozkatuko dutela esan du.

Azkoitia Lantzen, S.A.ri buruz ezetz bozkatuko dutela adierazi du, ez direlako parte.

Aurrekontu Konsolidatuari ere baietz bozkatuko dietela esan du amaitzeko.

Janire Igoa andreak, 2020. urtea oso ezberdina eta zaila izan dela zentzu guztietan adierazi du. 2021eko aurrekontuak elkarlanean osatu dira adierazi du.

PSEren ekarpen nagusiak honakoak izan dira:

- Parke biosasungarria egitea.
- Mikromatxismoaren gida egitea.
- Gizarte Zerbitzuen gida eta abar.

Amaitzeko aldeko bozka iragarri du.

Iraitz Otaño jaunak eskerrak eman dizkio Udal Gobernuari eta Ana Azkoitia andreari aldaketak entzun eta aldaketak onartzeko izandako prestutasunagatik.

Arau Subsidiarioen berrikuspen orokorra eskatu dute eta momentuz kontuan hartu ez zaienez, udal aurrekontuan abstenituko direla esan du.

San Jose Egoitzan aldeko bozka iragarri du.

Zubiaurre-Elkargune Institutuan, publikazioaren alde daudela dio, baino baiezkoko bozka emango dutela.

Azkoitia Lantzen, S.A.n abstenituko direla esan du, eta Aurrekontu Konsolidatuan ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ana Azkoitia andreak, beti saiatzen direla dio, beste alderdiekin egon ondoren, ahal dena sartzen.

2021. urtean Arau Subsidiarioen egokitzapena egingo dela Plan Orokorrera adierazi du, baina ez guztiz berria.

Azkoitiko Udalaren 2021rako Aurrekontuaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Ibarguren.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udalaren 2021rako Aurrekontuak hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

Zubiaurre-Elkargunea Institutuko 2021rako Aurrekontuen bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Zubiaurre-Elkargune Institutuko 2021rako Aurrekontuak hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

San Jose Egoitza Fundazioaren 2021rako Aurrekontuen bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak San Jose Fundazioaren 2021rako Aurrekontuak hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

Azkoitia Lantzen, S.A.-ren 2021rako Aurrekontuen bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitia Lantzen, S.A.-ren 2021rako Aurrekontuak hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

Azkoitiko Udalaren 2021rako Aurrekontu Kontsolidatuaren bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko 2021rako Aurrekontu Kontsolidatua hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- 2021 EKITALDIRAKO AZKOITIKO UDALAREN LANGILEEN PLANTILAREN HASIERAKO ONESPENA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: 2021 EKITALDIKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA: HASIERAKO ONESPENA

AURREKARIAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112. artikulua, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onartzen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretu Legegilearen VI. Tituluaren I. Kapituluak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14. artikulua eta ondorengoek xedaturikoari jarraiki, Azkoitiko udaleko Udaltza Plenoak, 2020ko abenduaren 30ean egitea aurreikusita dagoen bilkuran, udaleko, bere erakunde autonomoetako – Zubiaurre-Elkargune Institutua eta San Jose Egoitza Fundazioa - eta Azkoitiko Lantzen, S.A. erakundeko aurrekontuak – bateratua - hasieraz onartzea aurreikusi da.

Horrekin batera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Toki Araubideari buruzko indarrean dauden Lege Xedapenak jasotzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126. artikulua xedatutakoaren arabera, Toki Korporazio bakoitzak urtero onartu behar du Pertsonalaren Plantilla, Aurrekontuekin batera.

Beraz, irizpen honen xedea, Azkoitiko udaleko 2021 ekitaldiko Lanpostuen Zerrenda eta Langileen Plantilla hasieraz onartzea da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Kontratazio eta Pertsonaleko Administrazio Orokorreko Teknikariak jarraian transkribatzen den lege txostena eman du:

I.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikulua i) atalean xedaturikoari jarraiki, aurrekontuaren dokumentazioaren artean, Pertsonalaren eranskina dago, hori Udalaren aurrekontu-plantilako diren lanpostuen zerrenda, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearekin eta hura garatu duten xedapenekin bat etorritz osatu delarik, 2021 ekitaldiko udal aurrekontuen pertsonalari dagokion kapituluak – 1. kapituluak – osatzeko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Pertsonaleko eranskina osatzeko garaian, Estatuko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen Legeak baita zenbait arlotan EAEkoek ere, pertsonalaren gastuen inguruan ezarritako arauak aintzat hartu behar dira.

Irizpen hau ematen den datan oraindik Espainiar Estatuko 2021 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrek onarturik ez badaude ere, adierazi behar da Kongresuko Plenoak 2020ko abenduaren 3an aipatu Aurrekontuen proiektua onetsi zuela eta ondoren Senatura pasa zituela haren tramitaziorako. Behin Senatuak dagokion tramitazioa eginda, Kongresuan 2020ko abenduaren 29an onartzea aurreikusi dutela, behin onartuta, hori argitaratutakoan indarrean sartuko delarik.

Beraz, irizpen hau ematen denean 2021 ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrek proiektuan badaude ere, horiek onartzeko egon den gehiengo zabala ikusita, horiek onartuko direla aurreikusten da.

Hori horrela, proiektuan dagoen 2021 ekitaldiko Espainiar Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 18. Artikularen Dos. Atalak, sektore publikoaren zerbitzura dauden langilegoaren ordainsarien inguruan ondokoa xedatzen du:

Dos. En el año 2021, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 0,9 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2020. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

18. artikularen Cinco atalean berriz, 2021eko urtarriletik abendura enplegatu publikoen sailkapen taldearen arabera, 12 hilabeteei dagozkien soldata eta hirurtekoen zenbatekoak eta ekaineko eta abenduko aparteko ordainsariei dagozkienak jasotzen ditu.

Bestalde, adierazi, oraindik orain ez dakigula EAEko aurrekontuak noiz onartuko diren, destino-osagarriari dagokionean erakunde horrek onartu beharra du bere aurrekontuetan edozein igoera.

Hori horrela, ordainsariei dagokienez, langilegoaren plantillan – aurrekontuko eranskinean - ordainsarien %0,9ko igoera aurreikusi bada ere, behin Estatuko Aurrekontu Orokorrek eta EAEkoak onartu eta argitaratutakoan, udalak dagokion erabakia hartuko du langilegoaren ordainsarien igoerari dagokionean.

Bestalde, honako doikuntza hauek ere egin dira aurrekontuko plantillan:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Kontu-hartzailertzan, lanaldi osoan, Administrazio Orokorreko Teknikari batena, zehazturiko programa garatzeko.
- Ongizate Sailean, Berdintasun eta Prebentzio arloetarako, Erdi mailako teknikari bat %70eko lanaldian zehazturiko programa garatzeko eta Gizarte langile bat %100eko lanaldian ezarriko programa garatzeko hau ere.
- Udaltzaingoan, aintzat hartuta egun hutsik dauden agente lanpostuak hornitzea aurreikusten dela, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian formakuntza ikastaroak egin behar izaten direnez, badaezpada horiek ordezkatzeko hiru udaltzaingoko agente ezarri dira – 6 hilabeterako -.
- Azken urteetan Lanbide erakundeak langileak kontratatzeke egindako diru-laguntza deialdiak kontuan hartuta, Udal lantaldean edo Udaleko beste arlo batzuetan eman daitezkeen ezohiko beharrei erantzuteko, aldi baterako hainbat lanpostu aurreikusi dira Aurrekontu plantillan – 12 peoi sei hilabeterako, guztiak %100 lanaldiarekin, horietatik 6 Lanbideren Enplegu Planaren baitako 2020ko deialdikoak – ebazpena ia 2020ko urte amaieran eman da – eta beste 6ak 2021ko deialdirako aurreikusi direnak - . Bestalde, 2020an Lanbide-k estreinekoz, langabezia dauden gazteak kontratatzeke deialdia egin zuen. Udalak gazte langabe bat kontratatzeke diru-laguntza eskaera egin zuen eta onartua izan zen. Horren ebazpena ere abenduan eman denez eta kontratazioa ere hil horretan egingo denez, gastua 2021ean jaso da.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzatik 2020ko abuztuan igorritako idatzian xedaturikoa aintzat hartuta – lanpostuak betetzeko aurreikusitako hornitze erak – lehiaketa -, hainbat lanposturen titulazioak egungo legedira egokitzea eta lanpostu bakoitzari dagokion dedikazio-erregimena zehaztea -, atal horien egokitzapenak egin dira.

2020an sortu den Idazkaritzako Erdi Mailako teknikariaren hizkuntza eskakizunari dagokionean, udaleko Euskara zerbitzuak, aipatu lanpostuaren funtzioak zehaztuz ezarri beharreko hizkuntza eskakizunaren txostena igorri ziola Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari eta erakunde horrek, 2020ko irailaren 5ean eman zuen txostena. Aipatu aginduzko txostena aintzat hartuta, Euskara teknikariak, 2020ko abenduaren 15ean, proposamena arrazoituz, ondokoa adierazi duela:

TXOSTEN TEKNIKOA

GAIA: Idazkaritzako erdi mailako teknikari lanpostu berriari hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezartzea.

LEKUA: Azkoitia.

ZEHAZTAPIDETZA:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

TXOSTENA:

Honen bidez, jakinarazten da:

Udalbatzak 2020ko uztailaren 29an onartu zuen udaleko lanpostu zerrendan idazkaritzan idazkaritzako erdi mailako teknikari lanpostua sortzea Antolakuntza batzordean Lanpostuen balorazio berriaren onarpena eta dagokion lanpostuen zerrendaren aldaketa diktameneko 10. orrian jasotako arrazoi nagusiarengatik.

2020ko irailaren 2an udalak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 23.1 artikulua dioena jarraituz, Hizkuntza Politikarako Sailordetzara (aurrerantzean, HPS) lanpostuari hizkuntza eskakizuna (aurrerantzean, HE) eta derrigortasun data (aurrerantzean, DD) ezartzeko proposamena bidali zuen, horrek emateko dagokion aginduzko txostena. Hona hemen udalaren proposamena:

<i>Idazkaritzako erdi mailako teknikaria</i>	<i>3. HE</i>	<i>DD udalbatzak erabakia hartzen duen eguna (urtea/hilabetea/urtea)</i>
--	--------------	--

Udalak HPS-ren aginduzko txostena 2020ko irailaren 11n jaso zuen (Erregistroko sarrera zenbakia: 3299). Txostenak DD proposamena onartu du. HE-ri buruz dio lanpostuaren ezaugarri komunikatiboak kontuan harturik, aztertzekoa dela ez ote den egokiagoa 4. HE ezartzea.

Udalan badaude A2 taldeko lanpostuak, besteak beste, gizarte langileak, aparejadoreak, liburutegiko teknikaria, zergabilketa errenta teknikaria, artxibozaina edota ingurumen teknikaria 3. HE dutenak. Beraz, talde bereko lanpostuen artean teknikari honek uste du ez dela komeni harrakalarik sortzea. Bestalde, lanpostua barne promozio bidez hornitzea aurreikusi da, udal langileen promozio eskubidea bermatze aldera. Lanpostuari 4. HE ezarriz gero, barne promoziora aurkez daitezkeen langileen kopurua erabat mugatuko litzateke. Gainera, lanpostua berria izanik, dagozkion ezaugarriak eta funtzioak egunerokotasunaren bidez finkatuko dira egunak pasa ahala eta beharra balego, badago aurrerago lanpostuaren HE egokitzea. Azkenik,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 23.4 artikulua arabera Udalbatzari dagokio erabakia hartzea eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak 7. artikulua dio euskara udalen eskumen propioa dela eta hizkuntza-autonomia zabala aitortzen die udalei artikulua horretan eta 6.enean ere bai.

Horren ondorioz, euskara teknikari honen proposamena da idazkaritzako erdi mailako teknikari lanpostuari ezartzea 3. HE eta plenoak erabakia hartuko duen eguneko DD (urtea/hilabetea/urtea) eta aurrerago beharra badago, lanpostuari HE egokitzea.

Txosten honek bere ondorioak izan ditzan,

Azkoitian, 2020ko abenduaren 15ean

Jasone Bilbao Atutxa

Euskara teknikaria

Proposamen hori aintzat hartuta beraz Lanpostuen Zerrendan aipatu lanpostuari 3. HE eta Udalbatza Plenoa egingo den data – 2020/12/30 – ezarri zaizkio.

II.- Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 74. artikulua xedatutakoaren arabera, non Herri Administrazioek beren lanpostuak antolatzeke, lanpostuen zerrendak edota bestelako antolakuntza-tresnak erabiliko dituzten xedatzen duen.

Aipatu zerrendek gutxienez ondoko baldintzak jaso behar dituztela xedatzen du:

- Lanpostuaren izena
- Lanpostuaren sailkapen profesionala
- Atxikiriko eskalak
- Hornitze-motak
- Ordainsari osagarriak

Aipatu Legearen 75., 76. eta 77. artikuluek, pertsonal funtzionario zein lan-itunpeko pertsonala sailkatzeko irizpideak arautzen dituzte.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. eta hurrengo artikuluek, Lanpostuen Zerrendak arautzen dituzte, honako hauen arabera:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Lanpostuen Zerrendaren xedeak honako hauek dira: herri-administrazioetako egiturak arrazionalizatu, pertsonal baliabideak zehaztu, lanpostuak betetzeko baldintzak xedatu, eta azken horiek sailkatu.
- Lanpostuen Zerrendak finko izaera duten eta aurrekontuan ezarri diren lanpostu guztiak jaso behar ditu, funtzionarioentzat, lan-itunpeko langileentzat eta pertsonal ebentualentzat gordetakoak bereiziz.
- Gutxienez honako hau jaso behar dute: lanpostuaren izena, Departamentua, dedikazio-erregimena, betetzeko baldintzak -hizkuntza eskakizuna barne-, sailkapen profesionaleko taldea, eskala, azpieskala edo kategoria, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan gainera, osagarriak (destinokoa zein berariazkoa), eta hornitze-mota zehaztuko dira.

Lege horren 16. artikulua, Lanpostuen Zerrenda **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko** betebeharra xedatzen du.

Bestalde, 17. artikulua ondokoa xedatzen duela: Aurrekontuetan oharmandakoei egokituko zaizkie lanpostu-zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu-zerrendetan oharmandako kredituek erantzun ezinoko diru-hornidura duen lanposturik.

III.- Izapidetzeari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Toki Korporazio bakoitzak urtero onartu behar du Pertsonalaren Plantilla, aurrekontuekin batera. Plantillak, funtzionario, lan-itunpeko eta konfiantzako aldi baterako pertsonalari dagozkion lanpostuak jasoko ditu. Bestalde, lege horren 90.2 artikulua, Toki Korporazioek euren antolakuntza osatzen duten lanpostu guztien zerrenda egin behar dutela xedatzen du.

Pertsonalaren plantillari dagokionean, aurrekontuen izapidetzea berbera eramango du, hau da hasieraz onartuko da 15 lanegunez informazio publikoan egongo da eta ondoren behin betiko onarpena emango zaio. Alegaziorik aurkeztu ezean, automatikoki behin betiko onartutzat joko da. Lanpostuen Zerrendaren kasuan, ostera, egintza bakarrean onartzen da.

Beraz, Antolakuntza Batzorde Informatzaileak ondoko irizpidearen onspena proposatzen dio Udalbatzari:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitiko udaleko 2021ko ekitaldiko Pertsonalaren Plantilla hasieraz onartzea eta Lanpostuen Zerrenda onartzea, irizpen honen eranskinean agertzen denaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA.- Pertsonalaren Plantilla informazio publikoan jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean, 15 egun laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 169. artikulua xedaturikoaren arabera, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, behin betiko onartutzat hartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta gardentasun atarian argitaratzea, eta udaleko langileen ordezkari jakinaraztea.

2020ko abenduaren 23ko Antolakuntza Batzordean, irizpena onartua izan da aho batez.

Aldeko Botoak: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Iraitz Otaño, Itziar Joaristi Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz,.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARIA”

Ana Azkoitia andreak azalpen orokorra eman du. Titulazioaren inguruko egokitzapenak egin dira, lanpostu batzuk hutsetik betetzera aldatzen dira.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, arazo gehien udaltzainekin daudela adierazi du, Arkauten daudenean bi soldata ordaintzen baitira, askotan, eta ondoren beste norabaitera joaten direla.

Aldeko bozka iragarri du.

Ana Azkoitia andreak azaldu du Udaltzaingo/Ertzaintzan plaza asko libratu direla erretiroak direla eta. Urtero daude prozesuak eta euren herrietara urreratzen joaten dira. Neurriak hartu behar direla deritzo soldataren ikuspuntutik, eta Udal Gobernuak hartu ditzakeenak hartuko dituela.

Iraitz Otaño jaunak dio Udaltzaingoko plazak hornitzen direnean, hizkuntz eskakizuna ahalik eta ondoen bete behar dutela.

Ana Azkoitia andreak behar duten titulazioa izaten dutela esan du, baina ez dutela Euskaraz egiteko ohiturarik.

Bozketaren emaitza honakoa da:



